

## ELKARTEAK:

Gure kasuan bi enpresekin batuko gara, aholkularitza enpresa batekin eta web orriak egiten dituen enpresa batekin.

Bi kasuetan aliantza bat izango da bi negozio ereduak ez direlako lehiakide eta gainera biek izango delako onuragarri. Guretzako legearekin arazoak edukitzea ekidituko dugulako eta beraiek dirua irabaziko dutelako guretzako lan egiteagatik.

Gure proiekturako funtsezkoa da ondo antolatuta dagoen webgune bat edukitzea, izan ere gure lan tresna izango da erosle eta hornitzaileak elkartzeko bidea izango delako. Webgune horrek antolakuntza eta diseinu egokia eduki behar du, beraz, profesional batekin lan egitea beharrezkoa izango da.

Gure aurrekontuaren zati bat profesional hori kontratatuzko bideratuko dugu . Hainbat enpresa eta pertsona daude hori egiteko gai direnak, beraz gure beharrak hobeen asetuko duena aukeratzen dugula bermatu behar dugu. Horretarako, enpresa edo langile desberdinekin hitz egingo dugu.

Horretaz gain, legearekin arazorik ez izateko, aholkularitza enpresa batekin lan egingo dugu. Izan ere, kontuan eduki behar diren hainbat izapide eta irizpide legal daude bete behar direnak. Alde batetik, gure enpresaren izaerarekin zer ikusia duten izapide legalekin laguntzeko eta beste aldetik bezeroekin zer ikusia dutenekin laguntzeko.

Bezeroei dagokionez, alokagai jartzen diren pisuak legalak eta duinak izateko zer baldintza eduki behar duten jakin behar dugu, legearekin arazorik ez edukitzeko eta gure bezeroei ahalik produktu onena eskaini ahal izateko. Horretaz gain, zer baimen behar diren ere jakin behar dugu. Horretaz gain, kontratuak egiterakoan beharrezkoa izango da beraien laguntza.

Beste aldetik, enpresa berri bat sortzerakoan bete beharreko hainbat baldintza, betebeharrak eta izapide daude; esaterako zergak ordaintzea, soldatak, enpresa moduan erregistratzea...